




Elgetako aldizkaria azaroa 61zk.

Goribek



Euskal Herriko mendi
federazioaren batzarra
azaroaren 5ean

Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorriö (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxa: 94 6583061.

Ehiztariei

Oraingo honetan lerro batzuek idazteko hartu dugun aitzakia ehiza izan da. Hau irakurri orduko baten batek honezkero pentsatu du, nola ez ba ! Jakinekua !. Talde ekologisten helburua azkenean ehizaren kontra joatea da. Ba... okertuta zaudete hori pentsatu duzuenok, ez daukagu asmorik ehizaren kontra idazteko, ez eta beronen kontra ekintzarik egiteko ere. Bakarrik lerro hauetatik zera eskatu nahi dizuegu ehizan zabilzatenoi: Ahal den neurrian basoa, mendia zegoen bezala uzteko. Honekin zera esan nahi dugu, adib.: pasean egoten direnei ba inguruetan ez uzteko zikinkeriarik, hamarretakuan hondarrak, kartutxuak jasotzeko... Ez dugu uste hau asko eskatzia denik. A! eta espero dugu aurten zuen punteria okertuta egotea.

Maya ingurugiro taldea

Bidia aukeratu

Azkenengo Goibekokalen leitu nitxuan bi iritzi bata bestian atzian, eta bixak nahikua antzekuak. Heurak danen erdixan ei dare eta aldameneko danak txarrrak dira, baiña neretako txar danak ez dira bardiñak. Gaur egun alde danak dabile biolentzia, borroka armatua, egitten dabenak eta Guardia Zibillak presuak urriñera eruaten dittuenian, batzuk PPkuak hiltzen dittue eta entierruak eta kontzentraziñuak ikusten dittugu. Baiña iñoiz ez dogu ikusten teledibistatik senidia bizitatzer Puerto Santa Maria bidian hildakuen entierruak, ez eta 3/4 nak beteta gero oindiok legez kanpo kartzelan daozenen barrixak. Eta hori be biolentzia da.

Baiña danak ez dabe biolentzia erabiltzen gauza bardiñak lortzeko, ez oiñ, ez lehen eta ez gero.

Batzuk borroka armatua egitten dabe Euskal Herrixan independentzian alde eta bestiak Españaren batasunan alde, 36xan eta karlistadetan moduan.

Euskal Herrixa bide kurutzian dago eta danok garbi esan bihar dogu ze bide hartu nahi dogun, Euskal Herrixa bere buruaren jabe izatiarena ala Estatutuarekiñ Espaiñako autonomi- xa bat izatiarena.

Neretako be borroka armatua eta kale borrokia abertzaliak batera lan egitteko trabak dira, baiña ekintza bat kondenatuta ez dogu ezer konpontzen, gauzak bardin jarraituko leukie.

Hemen egin bihar dana da, biolentzia ez erabiltzeko bidiak jarri, danon artian oin bi urte moduan, Lizarratik hasi eta Udalbiltzatik jarraituz.

Baiña horretarako danok garbi esan bihar dogu zein etorkizun gura dogun, Ezker Abertzaliak eta Eusko Alkartasunak bidia garbi dauke Euskal Herri Independiente baten alde. PNVEk gaur kriston erantzunkizuna dauka hartzen daben bidiarekin, PSOE rekin bat egin Estatutua defendiduta edo beste abertzaliek independentziaren bidetik jo bihar dau. Denbora hartan be PSOEK GAL sortu zeban eta horregaittik ez zeban iñoiz gobernutik bota.

Baiña batzuk biolentziaren aitzakixiakin lasai dare bide bat hartu barik, beti bidekurutzian inguruko txarrei kulpia botata.

Zenbat milla milloi jaso dittue azken 21 urtian, Jaurlaritza, diputaziñotan eta alkatetzan egon diranak?

S.Intxorta

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inisialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobran Goibekokale ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

Gurekin internet bidez euki gura badozu hartu- emona, posta elektronikoa: goibeko@topagunea.com

ESTAMPACIONES INTXORTA S.A.



AENOR

ER

Empresa Registrada

ER-0714/2/96

Betsaide poligonoa 2-B. lur saila. Pabiloi z.k.: B9- B12. Posta Kutxa 106 48230 Elorriko

Tel.: 94 6231914 Faxes: 94 6231928



Sagardo egun bat

Aurten ez naiz sagardo egunera joan, beno ez Elgetan baina bai Zarautzen. Han izan ginen 6 lagun, bertako jendearekin sagardoa egiten. Sagarrak mota desberdinetakoak ziren, gozoak eta garratzak (gaur egun, sagardoa egiteko erabiltzen diren sagarretatik % 40-60 a (urtearen arabera), beste herrialdeetatik ekartzen dituzte, Galizia eta Bretaniatik gehienbat), eta makina baten bidez zatitu egin genituen.

Ondoren, prentsan sartu eta prentsatu. Pausatzen utzi minutu batzuk eta mugitu edo eta nahastu eta aberrero prentsatu. Hau 4 - 5 aldiz. Prentsatzan den bitartean kolatu egiten da. Ondoren, kupelean sartu. Kupela beteta egon behar da. Goikaldean duen zulo batetik bitsa botako du 10 egunetan zehar gutxi gorabehera eta guk bete egingo dugu. Bitsa botatzeari uzten dionean, kortxoa jarriko diogu eta hilabetez edo kupelean egongo da. Ondoren botiletan sartzen delarik; zeren, gaurko txot egiteko ohitura hau, aintzina dastatzeko zen, sagardoa egina zegoen edo eta erosi aurretik gustoko zuen jakiteko, ondoren botiletan sartu eta bertatik edaten zutelarik, bestela kupeletan galdu egiten baita.

Eta ze arraio! Udan, beroa dela eta gure gorputzak asko eskertuko du sagardo freskoa.

Sonia Idigoras



Natura, gure ama

Gaur egun beste arrazoi batzuren artean natura jasaten ari den kutsadurak sorrariko kezkek bultzatu naute aurtengo ikasketak burutzera: ingurugiro kimika.

Ez dago zertan ikasketa maila bat izan "gure ama" jasaten ari den kutsadura berri izateko. Nahikoa dugu era ezberdinetako komunikabideei kasu egitearekin. Hala nola, Co isurketak (gasolinaren erreketatik) CH4 aren ondorioz hildako eta gaixotuitako ugari, CO2 -a (negutegi efektua eragiten duten substantzia), era ezberdinetako uhin kutsatzaileak etab.

Baina nere nahia ez da zuei kimika ikastaro bat ematea baizik eta honek nire buruan sortu duen ZALANTZA azaltzea.

Teknologia aurrera doala zenbat aldiz entzun dugu? Ia egunero gai honi buruz zerbait entzun, irakurri eta ikus dezakegu, baina benetan egia al da? Teknologia gizarteko baliabideei aurrerapen bat eskaintzen saiatzen da, makinaia berriei eta metodo berriei esker. Baina hori al da lortzen ari dena?

Gaur egun, oso modan dauden esku-telefonoak, "kalitate" honek, industria ugariak, deforestazioak... tenologiaren aurrerapenak dirala sinestarazi nahi digute baina ez! Hauek gizakion komoditatea hobetzea besterik ez dute lortu, eta gure indarren gainetik dagoen amaren gaixotasuna handitu besterik ez dute egin.

Beraz, saindu dezagun gure esku dagoen neurrian eta TEKNOLOGIA hobetu dezagun ikuspuntu guztiak kontuan izanda.

Iraxe Uzuriaga

GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Goibeko K. E. Salbador kalea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Oxel Erostarbe, Bittor Gallastegi eta Igor Arizmendiarieta. **Erredaktoreak:** Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolaza. **Publizistak:** Jone Oianguren, Miren Atxotegi eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketak:** M. Elena Eztenaga, Ikastola. Tirada: 700 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.


E-mail: goibeko@topagunea.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



kutxa

gizarte-ekintza
obra social



Eusko Jaurlaritzako
Kultura sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek
Elgetako Udalaren
laguntza jaso du



Goibeko
k.e.
Tel.: 943 78 90 85
Salbador 2, Kultur Flxea
goibeko@topagunea.com



Gipuzkoako foru
aldundiak diruz
lagundutako aldizkaria

“Slipt” Mallorkako taldearen kontzertua Gaztetxean

Partxis Lehiaketa, Gaztañerre eguna, Kontzertuak eta pelikula antolatu dituzte herriko gazteek azaroari indarrez ekiteko. Abenduan Hies Ekimenekoak gerturatuko dira, Hies jardunaldiari hasiera emateko.

Ekintza ugari antolatu dituzte azarorako Gaztetxekoek. Azaroak 4an Partxis lehiaketa izango da arratsaldeko 17:30etatik aurrera. Txapelketa honetan parte hartu nahi dutenak egunean bertan izango dute izan emateko aukera. Azaroak 10ean iluntzeko 19:00etatik aurrera Gaztañerre Eguna izango da. Azaroak 11an Mallorkako SLIPT taldekoen

kontzertua Gaztetxean. Kontzertu honetan “batzuk?” taldeak ere bere emanaldia egingo du. Gaueko 22:30etatik aurrera Pop musika izango da beraz egun honetan. Azaroak 26rako bestalde “Quedate a mi lado” pelikularen proiektzioa izango da arratsaldeko 17:00etan.

Aipatu behar da azaroak 17rako kontzertu sorpresa antolatzeko asmoa daukatela Gaztetxekoek. Etorriko den taldearen izena ez digute eman, oraindik guztiz lotuta ez dagoelako. Esan digutenaren arabera oso kantari ezaguna omen da. Ea ba guztiok harritzeko emanaldia antolatzen duten.

Lagun Artea errota konpontzeko lanak

Uberatik Elgetarako bidean, Isusigarre auzoan kokatzen den errotan konponketak egiteko asmoa dauka Udaletxeak. Konponketa hauek aurrera eramateak bost milioiko aurrekontua izango dute. Diputazioak bi milioi ordainduko ditu eta aurtengo aurrekontuetatik Udaletxeak berak izendatu ditu dagoeneko bostehun mila pezeta. Falta den dirua hurrengo urteko aurrekontuetan sartu beharko da. Lanak burutzeko muga datorren urteko uztaila izango da. Errotaren egoera ikusita, egokiena lanak aurrera lehenbailehen eramate dela onena uste du Udaletxeak. Hau dela eta eskatu zituen laguntzak Diputazioan. Elgetan martxan jarri daitekeen azken errota dela kontuan hartuta eta bere egoeratik zenbat denbora iraungo duen ez dagoenez argi, urtea amaitu aurretik lanekin hastea espero du Udaletxeak. Lan hauekin teiltua eta paretak berrituko dira eta baita errotako bi hariak martxan jarri ere. Udaletxeak konponketak egin eta gero, Errota edozeinek ikusteko moduan jartzeko asmoa azaldu du.

Mendiak Garbitzera irteera

Baserritarren Batzordeak deituta urriaren 15 eta 22an, auzolanean mendiak garbitzen aritu dira zenbait lagun. Lan hauek egiteko Udaletxeko traktoreari desbrozadora jarri zioten eta uztailan probak egin zituzten, Arraoz eta Azurtzako bideak garbituz. Urriko irteeratan Egoarbitzako bidea garbitzen jardun dute.

Deba Bailarako herrietako berbetak indartzeko jardunaldiak

Badihardugu Euskera Elkarteak, Deba Bailarako herrietako berbetak indartzeko eta prestigiatzeko asmoarekin, jardunaldiak antolatu ditu. Jardunaldiak azaroaren 18an goizeko 9:00etako eguerdiko 13:30etara izango dira, Eibar-ko Portalean. Koldo Zuazo izango da berbaldi nagusia emango duena eta gaia interestzen zaion edozeinek hartu dezake parte bertan. Jardunaldien helburuak, elkartean herri guztietako ordezkariak batzea, herri berbeta idazteko erizpideak onartzea eta ekimena prestigiatzeko agiria adostea izango dira.

Kantoiko bidea itxita

Eibarreradoan bidean konponketa lanak egin arren oraindik ez da bide berria ireki. Bidea irekitzeko diputazioak eman beharreko baimena geratzen da, Udaletxea diputazioko teknikariek egin duten txostenaren emaitzen zain dago. Bide berria irekitzeko baimena laister emango dute diputaziotik. Kontutan hartu behar da, San Roke kale amaieran egingo dituzten etxebizitzetan lanak hurrengo hilean hasiko direla.

GRUPO
IFA
 Produkturik onenak,
 prezio onenean
ALDI
 Tel:
 76 80 98.

Bandoni Bolinaga
 METALAK
 FS7 18
 Tel - Fax 76 80 64
 ELGETA

P. Iriondo "Lehen, orain eta gero, Elgeta Euskal Herriko mendizaleentzat sinboloa izan behar da"

- Urte ugari egon zara Mendi Federazioan lanean, zer balantze egiten duzu?

Balorazioa oso positiboa da. Kar guak hartu nuenean egoera nahiko gogorra zen, hamazortzi urtetan nik eta direktibako lagunek egindako lanaren ondorioz egoera asko hobetu dela esango nuke. Balorazio oso pozgarria eta positiboa da.

- Zeintzuk dira Federaziunak azken urtetan lortutako aurrerapenak?

Aurrerapenak asko izan dira: federazio zuzendu eta saneatzea izan zen garrantzitsuena hasieran. Momentu honetan dauzkagu 20.200 federatuak lortzea ere lan bikaina izan da, urtero urtero federatu maila gorantz doa.... Azpimarratzekoa da Euskal Herrian dagoen mendi zaletasuna. Urruti joan gabe ere igandero inguruko mendietara joaten diren mendizaleak... Euskal Herrian goi mailan dabilenez gain mendizale kolektiboa oso egoera onean dago, ez dago zaletasuna galduta. Momentu honetan mendizale guztiok gara garrantzitsuak, mendizale mailan egoera zorionsua pasatzen ari gara. "Pirenaika" aldizkariak lortu duen kalitatea ere azpimarratzekoa da, lan asko egin ondorengo emaitza izan da.

- Zer izan da Elgeta Federaziorako? Batzar Orokorra Elgetara eramatea, poz handia izan da neretako. Elge-

ta ez da izan behar hogeitabost urtean behin gogoan hartzeko herri bat bakarrik. Elgeta Euskal Herriko mendizalientzat sinbolo bat izan behar da, bai lehen, bai orain eta bai gero. Kontutan hartu behar dugu Federazioa Elgetan sortu zela, Elgetan dagoela artxiboa, museoa Elgetan egiteko proiektua aurea doala... Elgeta izan behar da gure bihotza, idea honekin aurrera jarraitu behar dala pentsatzen dut, Elgeta indartu behar dugu.

- Zelan ikusten duzu Federazioaren etorkizuna?



Federazioaren etorkizuna konplikatu da. Gaur egunean federazioa enpresa haundi egin da eta oso konplikatu da nik eraman dudana bezala eramatea. Administrazio mailan gauza asko zuendu behar dira, egun guztian lan egingo duen idazkaria behar da. Eusko Jaurlaritza, Diputazio, prentsa, etab-ekin kontaktuan egoteko, dauden eskabideei erantzuteko, gaur egun federaziunak daukan indarrakin egunez ere norbait egon behar da.

- Zeintzuk izango dira Batzar Orokorreko gai nagusixak?

Alde batetik lehendakari berria aukeratu beharko dugu, kandidatoa Antxon Bandres da. Dagoeneko egon gara kontaktuan, bere disposizioa oso ona da. Gauza batzutarako eskatu dit laguntasuna eta laguntasuna lagun batek eskatzen didanean laguntzeko prest nago. Familia honetako guztiok lagundu behar dugu ahal dugun heinean, denon artean egin behar dugu lana.

Bestalde Aurreko Batzarrean ni Federazioko Ohorezko Lehendakari izendatzea erabaki zen omenaldi bezala. Batzar honetan Felix Iñurrategiri urrezko insignia ematea ere pentsatu genuen, eta hau egiteko gure Batzar Orokorra dela momentu egokiena pentsatzen dugu.

Mendizale Federakundearen batzarra

Azaroaren 5ean, Igandea, mendizale Federakundearen batzar orokor arrunta ospatuko da auditorium berrian, eguerdiko 11:00etan. Ondoren, 14:30etan, anaiarteko bazkaria izango da bertan eta bertara batzarkideak eta nahi duen edozein

pertsonak joateko aukera dauka. Menua: marmitakoa, txekor-ragouta txanpinoiekin eta Parisina patatekin, ojaldezko etxeko tarta izozkiarekin, ogia, Señorío de Gallando (97ko kriantza), Chivite Gran Fuedo, kafea, deskafeinatua eta infusioak,

Likore kopa. Bazkariaren ondoren Xibidi taldearen eskutik musika emanaldia egongo da 16:30etan 7ak arte. Egun guztian zehar taberna denontzako zabalik egongo da.

Ione Oianguren: "Denboraldi baterako hona etortzeak merezi du"

Lau hilabete dira Ione Oianguren Londresera joan zela bere ingelesa hobetu nahian. Hilaren 12an ekarri zituen etxeko neskakilak herria ezagutzera eta harrituta bueltatu ziren hemengo herri giroa ikusita. Guk Elgeta eta Londreseko lotura e-posta bidez egin dugu eta idatzitakoa lerro hauetan dago.

- Zer egiten du Elgetar batek Londresen?

Londresera lehenengo aldiz orain dela 2 urte etorri nintzen au-pair bezala lan egitera (umeak zaindu eta etxeko lanak egin). Aldi hartan nijeriar familia batetara joatea tokatu zitzaidan eta hasieran pixkat arraroa izan arren, arraza eta erlijio desberdinengaitik, familiak oso ondo hartu ninduen eta orduandik ahal izan dudan guztietan etorri naiz bisita egitera. Orain beraiekin bizi naiz, eta hemen naizen denboran ingelesa hobetu eta lan esperientzia areagotzea da egin nahi dudana.

- Noiz arte geldituko zara bertan?

Momentuz ez daukat El-


getara itzultzeko inongo presarik, Hiru izarretako hotel batean ari naiz errezptionista eta horrek nire ingelesa hobetzen laguntzen dit. Datorren urtean Gasteizen itzulpidegintza egiteko asmoa daukat, hori izan da hona etortzearen arrazoi garrantzitsuenetako bat, ingelesa hobetu beharra. Hala ere, orain ikasketa horiek bertan egiteko aukera aztertzen dihardut.

- Zer da Elgetatik gehien faltan botatzen duzuna eta eta Londresetik gehien erakartzen zaituena?

Familia eta Elgetako lagunak faltan botatzen ditut baina telefonoz denekin hitz egiten saiatzen naiz eta horrek errazagoa egiten du. Hala ere, Elgetako herri giroaren falta handia igarri dut. Londresetik gehien erakartzen nauena bertako hiri giroa da; jende desberdina: arraza, erlijio, tribu ezberdinak...

- Laburpen bat atzerrian egindako denborari buruz.

Orain dela 2 urte Londresera joatea erabaki nuen



Berriro ere bueltatzeko desiatzen daude umetxoak. Laster etortzeokoak ei dira.

eta au-pair bezala lan egin nuen orain bizi naizen familiaren etxean eta orduandik sarriagotan izan naiz Londresen. Frantzian ere egon izan naiz. Iaz bi alditan egon nintzen Frantzian lanean. Udan Bordele inguruko kanpin batetako harrera gelan egin nuen lan unibertsitateko lagun batekin, eta gabonetan Disneyland Parisen unibertsitateko lagunekin egon nintzen lanean.

- Nola konpontzen zara Elgetako barri eukitze-ko?

Etxekoek egunero deitzen didate eta beraien bitartez heltzen zaizkit Elgetako

berriak.

- Askok ez dela etxeko 3 neskakilak ekarri dituzu Elgetara, zelan konpondu dira?

Ondo, oso gustora daude Elgetara egindako bisitarekin. Harritua gelditu ziren herritar guztien artean dagoen harremanarekin, hemen kalean ez baita iñor agurtzen, ez inorekin hitz egiten. Hizkuntza desbedinak izan arren nire familiarekin eta lagunekin komunikatzea lortu zuten. Buelatzeko desiatzen daude eta hurrengo aldi epe luzeago batarako eta amarekin etorriko dira.

Jarri zure iragarkia

Tel:943.78.90.85

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.

Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

“Espaloia proiektua” ezagutzeko aukera

Azaroak 5ean Goibeko Kultura Elkartearen Espaloia egitasmoaren berri jakin ahal izango da


Euskal Herriko Mendi Federazioaren Batzar Orokorra aretoan izango dela aprobetxatuz, Goibeko Kultura Elkarteak, Kafe Antzokiaren proiektuaren nondik norakoa azalduko die jakinmina duten guztiei.

Azaroak 5ean, arratsaldeko 16:30etatik aurrera herritar guztiek izango dute, Goibeko Kultura Elkarteak auditorium berrirako proposatzen duen “Espaloia Kafe Antzokia” proiektua ezagutzeko aukera. Dagoeneko aurkeztu zaie proiektua Guraso Elkarteari, Gaztetxeari eta Kultura Batzordeari. Orain herritar guztiei ber-

tatik bertara aurkezteko ordua dela pentsatzen dute, horrela herritarren iritzia jaso eta proiektua garatzeko. Hau dela eta aretoa irekita egongo den egun hau egokia dela pentsatuz edozein galdera erantzuteko prest egongo dira Goibekoko kideak. Goibeko kultura elkarteak taberna ere zabalduko du egun horretarako.

Goibekoko talde eragilearen bilera

Azaroaren 8an, gaueko 21:30etan Goibeko K.E.eko bilera izango da Goibekokaleko bulegoan. Bilera honetan “Espaloia Kafe Antzokia” proiektua au-



Guraso Elkarteari aurkeztu zaio dagoeneko proiektua.

rre eramateko eman behar diren pausuak aztertu eta lanak banatuko dira. Ondoren talde desberdi-

nek proiektuari buruz eman duten eritzia aztertuko da.

Enrike Gorrotxategi Kultur Teknikari berria

Ipuin kontalaria eta Antzerkia antolatu ditu Kultura Batzordeak

Kultur Teknikaria aukeratuta

Enrike Gorrotxategi elgetarra izango da aurrerantzean Kultur Teknikari berria. Froga ugari gairatu behar izan dituzte lanpostu honetarako aurkeztu ziren guztiek baina azkenean Enrikek lortu du postua. Kultura arloaz gain, turismo eta euskera arloetan ere bera izango da teknikaria.

Kultura Batzordearen ekintzak

Azarorako zenbait ekintza antolatu dituzte Kultur Batzordetik. Azaroak 10ean, barikua, “Hiruki susperketa” antzerki taldearen eskutik *Selena Milena* antzezlan ikusi ahalko dugu liburutegian. Arratsaldeko 18:00etan izango da eta 12 eta 16 urte arteko haurrei begira antolatu da. Azaroak 16an, eguena, Pello Añorga ipuin kontalaria etorriko da. Arratsaldeko 14:30etan haur eskolako 1. eta 2. mailakoentzat izango da saioa eta 15:30etatik aurrera hiru, lau, bost eta seigarren mailakoentzat. Pello Añorgaren ipuin kontaketak ere liburutegian izango dira.



Igoibarko txistulariak izan genituen.

Zein eritzi dakazu azaruak 1ian egitten dan ospakizunan gaiñian?



Esther Tatarika
(45 urte)

Ez naiz sekula elizara juaten eta horregaitik ez dot iñungo ospakizunik egitten. Hori egunoi beste jai egun baten moduan pasatzen dot ezer berezirik barik.

Uste dot hau egunau negoziua egitteko modu bat dala azken batian.

Gaiñera, benetan nahi bozu kanposantura juan beste egun normal baten be juan zeinke. Baiña ni juan egitten naiz.

Aurora Larranaga
(25 urte)



Neretako hau egunau oso politta da. Hiru illoba daukazu kanposantuan eta lorak eta edozer gauza eruaten da, ekonomikoki ahal dan guztia. Ahal dan guztia eruan geinke iñungo publizidadeik egiñ barik. Baiña ni urteko egun guztietan juaten naiz.



Ramon Nigalde
(45 urte)

Uste dot ohittura bat dala eta tradiziño honekin beti segiduko dogula. Nik ez dakat ohitturaik egun hori ospatzeko.



Nidal Taya
(65 urte)

Neretako ez da ospatzeko egun bat, gogoratzeko egun bat da. Nik lorak eta eruaten dittut eta familia etortzen bada be danok junto egongo gara, baiña ez jata pensatzen ospatzeko egun bat danik.

Isabel Prieto
(33 urte)



Neretako egun serixo samarra da. Beti familixakon bat edo baldin badakazu beti gustatzen da lorak batzuk eruan eta behintzat bueltaxo bat emotia kanposantutik.

Paxi Arantzabal
(71 urte)



Kartetan jokatzeko giro egokia

Kopa bat

Tel: 1 768093

Paxi Taberna

Aintzane denda
zugandik gertu
behar duzun
beste



Domingo Iturbe 4-behea Tel: 943 768297

Etor Telleria (32 urte) Bihargiña

Aries: Zubixa pasau ostian diru barik geratu haiz? Oin badakik/badakiñ, etxian epel-epelian gelditu biharko haiz.
.....

Taurus: Kontuz ibilli hadi!! Hire suertia oindiokan be Pilarikako zubixan jабik/jabin eta.
.....

Geminis: Udan izan dittuan/dittunan abentura danak goguan? Hi hori pasau zuan/zonan eta bajatu hadi laino gainetik.
.....

Cancer: Orain Yoga, gimnasioak eta... Uda danian batu dittuan/dittunan toxina guztiak botatzen, ala orekia berreskuratzen?
.....

Leo: Oriñ betiko martxiari helduta habil eta ez dok/don aldemenian zein daukan begiratu be egitten. Altxaik/altzain burua eta zabaldu begiak!
.....

Virgo: Girua asko aldatu dok/don eta gaixotu baiño lehen zaindu. Bajakixau/bajakiñau hi ohe zale amarratua haizela.
.....

Libra: Eskolak hasi barri eta kejaz? Azkenian biharrian hasi biharko haiz lehenbailehen.
.....

Eskorpio: Orain neskatan hasteko hago? Uda guztia hor eduki dok/don eta zeri begira egon haiz ba????
.....

Sagitarius: Kontuz zure konplexu horrekin, azkenian hire kontra bueltatzen dittuk/dittun eta.
.....

Capricornius: Aste akaberetan beti kanpora faten haiz ligatzera eta bueltan beti, badakik/badakin sekulako atalakin gaiñian. Ze fundamentu?
.....

Acuarius: Amak esandakua egingo baheu, ez heuke oin hola gixajuan pare egon biharrik. Oinguan leziñua ikasiko huan/hunan, ezta?
.....

Piscis: danak kotxia, neskia/mutila, etxia... eta hik ez dittuk/dittun holako asmuak buruan ez dok/don. Normala danak raru haixela esatia.
.....

Zelan sortu zan Lan Hotz enpresa? Ni Eibarren nenbillen lan berdiñian eta pentsau neban neu nere kontutik hastia eta idea horretatik sortu zan.

Zenbat urte dakaz Lan Hotzek? Beratzi.

Zer da Lan Hotzen egitten dozue-na? Instalaziñuak eta hosteleritzako makinariñia sartu.

Zein ingurutan ibiltzen zarie?

Hemen inguruan, asko jota Donostira be juañ izan gara, baiña normalian, hemen gertu.

Zer egitten dozu eguneko lana amaittu eta gero? Egunekua sekula ez dot amaitzen egunian, baiña amaittutakuan pasiau edo bueltatxo bat emon hortik zihar.

Zerek emoten dotsu amorrua? Inbirixiak.

Laneko zein kotxeekin geratuko ziñake? Danak lanerako furgonetak diranez, edozeiñekin.

Hobbirik badakazu? Hobbixak asko baiña denboria gutxi. Bestela, neri beti gus-tau izan jata

belozidadia, autuak, motorrak. **Gustoko musikia?** Etnikuak diran danak eta batezbe Mikel Laboa gus-tatzen jata.

Kazako denboran nora joaten zara? Beti Burgos aldera joan izan naiz. Hemen gutxitan egoten naiz. **Etorren burua zelan definiduko ziñuke?** Pertsona normal bat zorte pixkatekin.

Defektoik badakazu? Bai, mordua. **Aldizkarirako proposamenik?** Proposamenik ez daukat, oso ondo dago dagon moduan. Beti segidu izan dot eta oso interesantia pentsatzen jata, gaiñera, uste dot, kriston meritua dakala holako herri baten holako rebista bat hillero eta-ratziak.

Euskal Herriko lekuik polittena? Berez, dana da politta baiña esate-rako Anboto eta Aspe ingurua oso politta da.

Lagunekin gustora egitten dozun zezer? Berba.

Azkenengo parrandia noiz eta ze-iñekin izan zan? Asko ez dittut eg-itzen baiña azkena uztañ inguruan. Gaiñera nere parrandak ez dira iza-ten beti zapatu edo aste akaberetan, igual astelehen baten kriston juer-gia egin neike.

Zerek emoten dotsu bilddurra?

Gaixotasun txarrek.



Berezitasuna:

Buztana.

Pintxo gozoak otartekoak.

BOLATOKI

TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

Goio

Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teil tuak

Sukaldeak

Globalizazioa: Sortzen dituen eraginegatik ezagunagoa

Azken egun hauetan horrenbeste entzun izan dugun fenomeno honen gainean berba egitera ausartu gara eta definizioa eman beharrean, nekazaritzan eta elikagaietan sortzen dituen eraginak idatzi ditugu. Ez dira ezgure teoriak ezta kalean jasotakoak ere, baina bai gertutik bizi eta beronen gainean gogoeta egiten duen indiar sendagile eta idazle batenak, Vandana Shiva.

Emakume honek indiar auzo eta etnia desberdinekin lan egin ondoren ateratako emaitzak azalduz azaltzen digu zer nolako eragina duen Globalizazioak eta zein aldrebesturik gabiltzan.

Adibide desberdinak apiatzearen (Punjab, Waranga...), nekazariak diren herrietan, ohi-turaz arroza, mijoia, leka-leak lantzen dituzten baserritarrek bere buruaz beste egiten dute, hazi hibridoak (nahasiak) saltzen zituzten konpainia haundiek heurak saltzen zuten haziak dirudun bihurtuko zituzten ame-

tsa salduz. Honen arrazoia, hazi hibridoak erabiltzeak urtero berriak erosi beharra ekarri du eta honekin batera izurrien aurrean askosaz markalagoak izanda pestizida erabilerak gorakada itzela izan du (1.980an 2,5 milioi, 1.997an 50).

Orokorrean, ekoizpena lur eremu batean jasotakoari esaten zaio. Eremu horretan era desberdinetako elikagaiak landatuz kantitatea ez da ugaria izango, baina bai kalitatea. Lurrarendako ere aberasgarriagoa da eta horrela elikagai anitz sortu daiteke bertatik, lehortea eta desertifikazioa eragotziz. Gaur egungo ekoizpenaren definizioa hartuz, beharrezkotzat jotzen dira gai kimikoen eta ingenieria genetikoaren gehitzea, horrela globalizazioarekin munduko gosea ere asetu daitekeelakoan.

Natura suntsitze-kobideetako bat, herrietako ekonomia eta ekoizle autonomo txikiak ikustezin bihurtzea da; heuren familiendako ekoizten



Gaur egun elikagai gehiago ekoizten dira, baina pobreek gutxiago kontsumitzen dute

duen emakume (Java, Txiapas, Tailandia, Mexiko, Afrika...) eta komunitateek ez-ekoizle eta ekonomikoki ez-aktiboak kontsideratuz. Horrela suntsitzen ditu globalizazioak ekonomia txikiak eta ekintza hauek gizarteari aurrerapen gisa zabaldu. Horregatik gaur egun, beharrak asetu eta sostengua ziurtatzen duten bideak gutxietsi eta bizitza eta berau sostengatzen duten sistemak baliogabetzat jotzen dira.

Era berean, globalizazioarekin nekazartza industrialak eragina izan duen herrietan, ezinezkoa bihurtzen ari da nekazari txikien iraupea, hemen ekoizpena oso gutxi ordaintzen delako eta izurriteak ekiditzeko gastuak itzelak direlako. Bien bitartean zerealak etabar ekoizten dituzten konpainia haundiak (Kellogg's, Quaker Oats, General Mills...) izugarriako dirutzak izaten dituzte.

Elikagaien globalizazioak, lurralde bakoitzeko jateko kultura aldatzen dihardu. Horrela, kultura globala eta bakarra inposatu nahi da, bertakoa, egunekoa eta eskuz landutakoa txarra dela hedatuz; eta eskulana makinaz eta gai kimikoez ordezkatzuz.

Nabaria da gaur egun elikagai gehiago ekoizten direla baina pobreek gutxiago kontsumitzen duela ere bai. Aurrerapenak pobrezia ghitzen duenean, egiazko ekoizpena (naturala, lekuan lekukoa) ezkorra denean eta espekulatzaila aberastasunaren sortzailatzat jotzen direnean, zenbait balore ez dabiltzala ongi igarri daiteke.

Gure Euskal Herria txiki honetan, nekazari eta baserritarrekin gertatzen ari dena ez ote da antzerako zerbaite? Zer esango dute heurak honen gainean?



Ezkontzen gehigarria



...eta kitto!, drogetenitturri,
goibekokale eta pil-pilean
aldizkarien

EZKONTZEN GEHIGARRIA

Honakoa da Eibar, Elgeta, Ermua eta Soraluze-ko aldizkariok hilabete honetan argitaratu dugun *Ezkontzen Gehigarria*. Eibar, Ermua, Elgeta, Mallabia eta Soraluzen banatuko dugu ale berezi hau.

11.200 ale kaleratuko dira, 28.000 irakurle ingururendako.

4. zenbakia.

2000ko udazkeneko
gehigarria

PUBLIZITATEA:
Mertxe Agirre.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Koldo Mitxelena Zumaran.

TESTUAK:
Silbia Hernandez.

TIRADA:
11.200 ale.

Tel. 943 20 67 76
Faxa. 943 20 67 76



Ezkontza prestatzeko egutegia

12 hilabete lehenago

Ezkontza eguna zein izango den zehaztu. Eliza, epaitegia edo udaletxea aukeratu, eta eguna libre dagoen galdetu. Nolako banketea nahi den aukeratu (hotel batean, jatetxe batean, katering...) eta aurrekontua eskatu. Aukeratutako eguna libre dagoela konfirmatu. Gonbidatuko den jendearekin behin-behineko zerrenda osatu.

- 6 hilabete lehenago

Ezkongaien jantziak bilatzen hasi (neurrira egin behar badira, denbora gehiago behar izaten da). Osagarriak aukeratu. Gonbidatuko den jendearekin zerrenda osatu eta gonbidapenak enkargatu. Ezkontzako opariaren zerrenda enkargatu. Eztei bidairako tokiak aukeratu eta informazioa batu.

- 3 hilabete lehenago

Ezkontzarako dokumentazioa prestatu. Eratzunak enkargatu. Elizan ezkondu behar zaretenak, ikastaroa hasi. Emaztegaiaren soinekoa probatu.

- 2 hilabete lehenago

Gonbidapenak bidali, eta erantzuteko eskatu. Argazkilaria kontratatu. Musikoak kontratatu. Emaztegaiaren soinekoa probatu. Senargaiaren trajea aukeratu. Osagarriak ere. Eliza, automobi-

la eta banketean ipiniko diren lorak aukeratu. Eztei bidaiara enkargatu. Menua aukeratu eta probatu.

- Hilabete lehenago

Emaztegaiaren orrazkera eta makilaia probatu. Emaztegaia orraztuta eta makilauta, soinekoa probatu. Eratzunak jaso. Emaztegaiaren lora-sorta aukeratu. Jasotako opariengatik eskerrak eman. Gonbidatuendako opariak enkargatu. Estetika zentrura joan. Eztei-bidaiara prestatu.

- Astebete lehenago

Soinekoarekin azkenengo proba. Jantziak etxera eramane. Gonbidatu kopuru zehatza konfirmatu. Estetika zentrura joan. Despedidak egin. Bidairako txartelak jaso. Mailetak egin. Gonbidatuendako opariak jaso.

- Egun bat lehenago

Mahaien kokapena egokia dela konfirmatu. Elizan lorak nahi den tokian daudela ziurtatu.

- Egunean bertan

Emaztegaiaren lora-sorta hartu. Manikura, orrazkera eta makilaia. Argazkilaria zeremonia hasi baino 2 edo 3 ordu lehenago ezkongaien etxera joan beharko da.



FOTO-VIDEO ZAPPING

ARRAQUETA 3 **Telefona**
EIBAR **943 20 74 17**



Etorri zaitetz!



- ✂ Senargai eta gonbidatuentzat aukera zabal traje edo-eta sport jantzielan
- ✂ NEURRIRA egiten ditugu alkondarak, trajeak, prakak, NARRUZKO JANTZIAK...
- ✂ ERAKUSKETA LEKUA prest dago jadanik ARIKIXANEGO leian
- ✂ Titulodun ebakitzailea

MENAJEA - KRISTALA - OPARIAK

Jauregui



*Oparietarako
ideak*

San Agustin 4 - Tel. 943 20 16 47



Senargaiak eta
ezkontzako
gonbidatuak
janzteko
prestatuta
gaude

Valenciaga

Zuloagatarren 1
Tel. 943 20 22 33

EIBAR

Tradizioari eusteko ahaleginetan

Denborak aldatzen doazela maiz esaten badugu ere, tradizio batzuek indar handia dute gure artean gaur egunean ere. Eta, ezkontzetan bereziki, tradizioek pisu izugarria dute. Pentsa, ezkongaien bizi-tzago egunik zoragarrienean ezin daiteke ezer gaizki irten. Horregatik, hona hemen kontuan hartu beharreko detaile batzuk.

- Erabilitako zerbait, berria den zerbait, norbaitek lagatako zerbait eta urdina den zerbait

Elementu horien esanahi simbolikoa ez da bat ere aldatu urteek aurrera egin arren. Erabilitakoak iragana adierazten du, atzean lagako den bizimodua; berriak, aurretik eramango den bizimodua, aldaketa; besteek lagatakoak adiskidetasuna esan nahi du eta, urdinak, berriz, fidelitatea.

- Eskua eskatzeko eratzuna

Erdi Aroan, IX. mendean, Nikolas I.a aitasantuak ezkontza baino lehenago eratzuna oparitzeko ohitura bultzatu zuen; izan ere, sasoi hartan urrearen prezioa hain garestia zenez, ezkontza ziurtatzeko modu bat zen. Emaztegaiak ez ezkontzea erabakitzen bazuen, prekontratua ahusten bazuen, beraz, bizitza guztia komentu batean pasatzera kondenatzen zuten. Atzera egiten zuenak gizona bazen, ordea, zigor gisa isuna ipintzen zioten, torturatu zezaketan edota exkomulgatu. Gaur egungo emaztegaiei diamanteekin apaindutako eratzunak oparitzen zaizkie, eta ezkerreko eskuan eraman behar dute eratzuna.

- Emaztegaia senargaiaren besoetan gelara sartzea

Ohitura honen jatorria aintzinako tribuetan bilatu behar dugu. Sasoi hartan, norberaren tribuan emakume gutxi zegoenean aldamene-

ko tribura joaten ziren emakume bila. Horregatik, «normala» zen emakumea etxean gizonaren besoetan sartzea.

- Aita-besoetakoa

Aurreko ohiturarekin lotuta, emaztegaiaren bahiketa egin ahal izateko laguntzaile bat behar zen, etxea zaintzeko bahiketa egiten zen bitartean. Aita-besoetakoaen figura hortik dator, beraz. Gaur egunean, ordea, emaztegaiaren aita-besoetakoa aita bera izatea da ohikoena.

- Emaztegaiaren lora-sorta

Guda Santuko gurutzadetan bilatu behar dugu tradizio horren sorrera. Emakume sarrazenok euren ezkontza egunerako azahar loreekin lora-sorta txikiak egiten zituzten, lore horrek garbitasuna adierazten duelako. Gaur egun emaztegaiaren gustuaren arabera egiten dira lora-sortak.

- Beloa

Sasoi batean, emaztegaiaren inozentzia eta birginitatea adierazten zuen. Asiako hainbat herrialdetan, beloa jaso arte senargaiak ez zuen emaztegaiaren aurpegia zelakoa zen jakiten.

- Diadema

Emaztegaia egun batez erregina bihurtzea da bere funtzioa.

- Emaztegaia senargaiari ematea

Sasoi batean emaztegaiak gurasoen propietate moduan kontsideratzen ziren. Horregatik, beste propietate batzuekin batera, aitak alaba ematen zion haren senarra izango zenari. Gaur egun, gurasoak ezkontzarekin ados daudela adierazten du ekintza horrek.

- Liga

Ezkundu eta gero liga botatzen Frantzian hasi ziren, XV. mendean. Egia esan, hasiera batean emaztegaiak ez zuen liga botatzen, gonbidatuta zeuden gizonak atzetik joaten ziren kentzen ziotenera arte.

- Eztei-bidaia

Teutoien ohitura da hori. Ezkundu eta gero, ezkonberriek ilargiaren ziklo osoan ezti eta urez egindako edaria edan behar zuten. Hortik izena. Gaur egun atsedean hartzeko egunak ezagutzen dira izen horrekin.

- Ezkontzako martxa

Ingalaterrako Victoria eta Prusiako Federico Guillermoren ezkontzatik dator ohitura hori. Victoria oso musika zalea zenez, berak aukeratu zuen ezkontzan jo beharreko musika: Mendelssohnen *Marcha Nupcial* delakoa eta Wagner-en *Lohengrin* opera.

- Emaztegaia, senargaiaren ezkerrean

Emaztegaiak bahitzen zireneko sasoiatik dator ohitura hau. Norbait emaztegaia ezkontzatik erreskatatzera agertzekotan, senargaiak eskubiko eskua libre zuen ezpata erabiltzeko.

- Ezkontzako tarta

Aintzinako Erroman, emaztegaiari *conferratio* izeneko pastel txiki batzuk botatzen zitzaizkion, fertilitatearen sinbolo gisa. Ingalaterran, XVII. mendean, era guztietako pasteekin egindako dorrea ezkonberrian azpian ipintzen zuten. Zenbat eta altuago, orduan eta zorionsuago izango ziren. Gero, XVIII. mendean, Frantziako sukaldari batek ingelesez dorrea oinarritzat hartuta, gaur egun ezagutzen dugun tarta sortu zuen.



Angela
Konfekzioak

60 tailarainoko erropak!

Zubiaurre 16
Tel. 943 17 09 05
ERMUA

NASBE
KONFEKZIOAK

Gizon eta emakumeendako jantziak

Calbeton 4 (Untzaga dorrearen ostean)
☎ 943 20 12 16

RAMOS
JANTZIDENDA

1956. urtetik
gizona jantzen

ZUBIAURRE-2
943 17 01 06
48260 ERMUA (Bizkaia)



Christa

*Ezkontza-egunean
ezin hobeto
jantzita egoten
lagunduko dizugu*

Arragueta 9
Tel. 943 12 71 06
20600 EIBAR

Bidebarrieta 62
Tel. 943 12 70 21
20600 EIBAR



*Jantzirik
dotoreenak
zuretzako!*

DOROTI



ARRIETA

*Gizon eta
emakumeendako
erropak*

7. Etxebarria 14
943 20 69 29
Errebal 22
943 20 20 24
EIBAR



Bitxiak eta goxoak ere badute lekua

Bitxiak ezkontzaren lehenengo momentuetatik agertzen dira. Tradizionalki, gizona izan ohi da emakumeari ezkontza-proposamena egiten diona. Emakumeak baiezkoa ematekotan, senarra izango denak eraztuna oparitzen dio, hartu berri duten konpromezuaren sinbolo edo lekuko gisa. Gehienetan, eraztun horrek harri bitxiren bat izaten du, diamantea normalean. Gaur egun aukera zabala dago edozein bitxitegitan eta prezioa harriaren tamainaren arabera aldatzen da. Gizonak, normalean, ez du konpromezu eraztunik jasotzen, baina gero eta gehiago dira erlojuren bat edo beste bitxiren bat oparitzen duten emaztegaiak.

Urrezko konpromezua

Ezkontza egunean bertan, baina, biek elkartrukutzen dituzte urrezko aliantzak. Aliantzak dira ezkontzaren sinbolo tradizional eta trinkoena. Bi pertsonen arteko lotura estua ematen dute aditzera, bi arimen arteko harreman betierekoa. Eta, oparien elkartrukaketekin amaitzeko, urrezko hamairu moneta.

Bitxiak, lehenengo egunean bezain disdiratsu

Bitxiak lehenengo egunean bezain politak eta garbiak edukitzea guztion ametsa da. Hona hemen aholku erraz bat, hori lortzeko. Ur epelean sartu bitxiak, eta urari jaboi leuna eta amoniako tanta batzuk bota. Laga hor apur bate-



GADIFOT

an eta, gero, hortzak garbitzeko eskuila batekin, igurtzi. Berriro ur epelean sartu eta zapi zuri batekin lehortu. Gero, banan banan gorde.

Perlak garbitzeko, egokienak gamuza erako trapuak dira. Gehiago iraun dezaten, ez erabili laka, jaboi edo lurrinik. Eta lepokoa lotzen duen haria urtean behin aldatu bitxitegian, beti garbi egoteko.

Gozo-gozo

Eta amodioa goxotasuna bada, ba al dago postrea baino gauza goxoagorik? Normalean jatetxea arduratzen da tartarekin. Jateko egina bada ere, hain ederra

izaten da askotan jakia baino artelana dirudiela. Ezkongaien pozik banatzen dituzte gozo-zatiak gonbidatuen artean. Baina, hala ere, horixe da ezkontza euren batera ospatzeko aukerarik izan ez dutenekin detailea izateko unea. Horretarako, etxera pastelak bidaltzeko ohitura izaten da.

Holako gauzak ezkontza eguna baino lehenago ondo lotzea komeni da eta horretarako toki espezializatuak egoten dira. Gonbidatuen oparietarako katalogo zabala izaten da gaur egun eta norberak aukeratu behar du, bere gonbidatuen gustuak kontuan izanda.

ERLOJUDENDA - BITXITEGIA

SALABERRIA

Zure ezkontza egunerako osagarriarik onenak

Errebal 22
Tel. 943 20 20 79
20600 EIBAR

San Andres gozotegia

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

Bidebarrieta 28
Tel. 943 20 79 73

20600 EIBAR

fasprint

Inprimategia

Ezkontza Gonbidapenak
txartelak, gutunak, albaranak,
fakturak, papergintza orokorra...

Tel./Faxa: 943 20 16 13 - Ego Gain, z/g - EIBAR



EZKONTZETARAKO GONBIDAPENAK
LEHENENGO JAUNARTZEKO GONBIDAPENAK
-ESKATU KATALOGOA-

Bidebarrieta 46, behea - 20600 EIBAR
311 postakutxa - Tel. 943 20 86 12 - Faxa. 943 20 88 23

DISEINU BERRIAK ETA ORIGINALAK

- Urre zuria eta horia
- Platinoa
- Diamanteak
- Perla kultibatua
- Perla australiarrak
- Tahitiko perla grisak

● Erlojuetan:
Mathey Tissot (18 (kte)
GUESS
Alfex
Up to you
Paco Rabanne (berria)



Julian Etxeberria 18, behea 943 20 64 07



Bidebarrieta 10 Tel 943 20 80 45 EIBAR

AGUIRRE

BITXITEGIA



❖ Ordainketa zatikatua
❖ Zure bitxia sortzen dugu

Estaziño 10
EIBAR

CANTON

DEGUSTAZIOA

- Ezkontza eta jaunartzeetarako
TARTA eta OPARIAK
- Pintxoak, ogia, artisau gozotegia...

TORIBIO ETXEBARRIA 13
☎ 943 20 63 22 / 943 20 05 47



Marrodan

BITXITEGIA

Toribio Etxebarria 24
Tel. 943 20 73 04
20600 EIBAR



Azal osasuntsua lortzeko aholkuak

Halako janaria, halako azala. Aurpegi ezin zoriontsuagoa izateko menua.

1.- Egunero bi litro ur edan, azala hidratatzeko.

2- Barazkiak eta frutak jan (batez ere zitrikoak, C bitamina izateaz gain estresari aurre egiteko oso lagungarriak direlako).

3.- Okela neurrian jan, digestio astunak saihesteko.

4.- Animalien koipeak ahaztu, batez ere azal koipetsua baduzue.

Ezkontza eguna baino 20 egun lehenago jan beharrekoa (dena dela, bakoitzak bere dermatologoari galdetzea da egokiena).

Ezer jan aurretik

Laranja zukua (basokada bat).

Armozuan

- Infutsioa, koiperik gabeko esnearekin (edulcolorantea edo azukrea).
- Ogi birrindua.
- Koiperik gabeko gazta.
- Mermelada.

Goizean

- Fruta ale bat eta basokada bi ur.

Bazkarian

- Basokada bi ur edo koiperik gabeko salda.
- Entsalada limoiarekin aliñatuta eta oilaskoa (azal barik) edo arraultza egosia.

Meriendan

- Koiperik gabeko yogurra edo infutsioa.
- Koiperik gabeko gazta.
- Mermelada.

Afarian

- Basokada bi ur edo koiperik gabeko salda.
- Oilaskoa (azal barik) edo arraina. Barazkiekin lagunduta.
- Fruta egosiak.



CAPI

Bidebarrieta 5 EIBAR
Tel. 943 20 15 47



Makilajea



Vitro-cal azazkalak eta manikura



Solariuma



Tintoa eta permanentea befileetan



Mikropigmentazioa: ezpainak, eye-liner, bekainak...



- ◆ Aurpegi tratamenduak
- ◆ Gorputz tratamenduak
- ◆ Masajeak

PRESTATU ZAITEZ ZURE EZKONTZARAKO

Hodei

ESTETIKA

San Juan 11, behea
Tel. 943 70 18 28

EIBAR

LASER-A LIGHTSHEERAREKIN

BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Sendagile espezializatua zure zerbitzura

- ✓ Zirurgia estetikoak
Ramon Aguinaga sendagilea
- ✓ Aurpegi tratamenduak
- ✓ Gorputzeko tratamenduak
- ✓ Mikropigmentazioa - Ezpainak - Bekainak

Alemaniko teknologiarik aurreratuena minik gabeko tratamenduetan

Urria - azaroa - abendua:
%25eko deskontua

E ELISA
EDERGINTZA

EIBAR

Ego gain z/g
943 20 76 33

JULEN argazkilaria
Argazki eta Bideo Erreportaiak



Urkizu 3 - EIBAR
Tel. 943 12 71 91




GADIFOT

ARGAZKILARITZA - BIDEOA
Inaki Galparsoro

Komentukoa, z/g
Tfnoa. 943 17 06 71
Ermua Bizkaia

FELIPE LOIOLA
ARGAZKILARIA



Juan Gisasola 10, behea
20600 Eibar

Tel. 943 12 72 44

FOTO VIDEO-ZAPPING



Birjiñape 1, behea
Tel. 629 446 606

Antonio Aguirresarobe
ARGAZKILARIA

Bidebarrieta 18 - 333 Postakutxatila - 20600 EIBAR
Tel. 943 20 13 16 • Faxe. 943 70 03 27
E-maila: a.g.c@clientes.euskaltel.es

ARRATE
LORADENDA



Bidebarrieta 64
Tel. 943 20 38 32



Laumar

Bidebarrieta 1
Tel. 943 20 16 26

Teacdi

San Juan 1
Tel. 943 20 33 29





BLANCA LORADENDA

Isasi 16 (EIBAR)

Tel. 943 20 88 47



EZKONTZAK • JAUNARTZEAK • BATAIOAK

ETORRI GU EZAGUTZERA, GUSTATUKO ZAIZU

- ✿ Gonbidapen berriak ditugulako.
- ✿ Ezkontzetarako, jaunartzeetarako eta bataioetarako ditugun opariak desberdinak direlako.
- ✿ Emaztegaiendako erramua aurkituko duzulako...
- ✿ ...baita zure kotxea ere.



✿ ...prendidoak

✿ ...eliza edo epaitegirako apaingarririk egokienak.

✿ Lorak gustatzen bazaizkizu, beti aurkituko duzulako behar duzuna.



✿ Zure beharren araberako aurrekontua prestatuko dizugu.

✿ Lora siku edo naturaletan zentzurik onena topatuko duzu, beti zure kolore gustokoenak erabilita.



✿ Zure gustoko landare eta lorontzia.

✿ Norberarendako artikulua.

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera, goizeko 9.00etatik arratsaldeko 20.00etara
Larunbatetan, 9.00etatik 15.00etara eta 16.00etatik 20.00etara
IGANDEETAN, 11.00etatik 14.00etara ZURE ZERBITZURA!



Ezkondu eta gero, bazkaria edo afaria... On egin!

Gure mugetatik kanpo gastronomiak ez du horrenbesteko garrantzirik izaten. Baina, Euskal Herrian behintzat, ospakizun garrantzitsuetan ez da janaririk falta. Bazkaria edo afaria izan, aukera zabala eskaintzen dute jatetxeetan.

Oso kontuan hartu behar da jatetxe askotan urte osoan jende ugari izaten dutela. Horregatik, sasoi ibili behar da jangelan tokia hartzeko orduan. Jatetxe gehienetan alde aurretik egindako menuak eskaintzen dituzte, prezio ezberdinetakoak. Ezkongaiak gehien atsegin dutena aukeratu eta hori izango da ezkontza egunean aterako dutena. Toki askotan probatzera ematen dituzte menuak, enkargatu baino lehen.

Edozein modutan ere, menu ohikoenetan entremesak (hotzak eta beroak), salda edo zopa, okela eta arraina sar-tzen dituzte. Mahaian eseri orduko, gonbidatu bakoitzak menua izaten du txarteltxo batean eta horrela badaki zer jango duen.

Eta, ondo jan eta gero, bazkaloste edo afaloste patxatsua aukeratzeko dute batzuk, digestioa ondo egiteko. Beste batzuk, ordea, nahiago izaten dute dantza piskat egi-nez kaloriak erretzen joatea.



JULEN ARGAKAZKIDINDA

Olaso industrialdea
943 74 01 08
ELGOIBAR

MARZYBI

JATETXEA

Нар
Зуби

**EZKONTZAK,
despedidak,
jaunartzeak...**

Parking pribatua

LARUNBATETAN MUSIKA ZUZENEAN

Loiola auzoa 24 **AZPEITIA** Tel. 943 81 56 08

KIRURI

JATETXEA

KANTABRIA

*Ezkontzak,
banketeak...*

ARRATE

Tel. 943 12 12 62

SÁLEGI JÁTETXEA



▶ 250, 200, 90 ETA 30
LAGVNENDAKO
5 JANGELA

BÁZKALOSTEAK NAHI
BESTE LVZATZEKO
AVKERA

BANKETEA ETÁ KARTA



▶ JANGELA BERRIA
ERAIKI DVGY



KOTXE ETA
AVTOBVSENDAKO
PARKING-A BERTARAINO

JARDIÑA, ▶
KOKTELERAKO
LEKY APROPOSA

ITZIAR
(Santutegiaren ondoan)

943 19 90 04

943 19 91 81




Izan leike nagittuta egotearren edo boligrafoik onduan ez zegalako. Ez dot uste izan leikenik oso zaila zalako, izan be, zeinek ez dau ezautzen BEEN jauna???????????

Ba itxuria danez jende gutxik ezautzen dau. Jentiak telebista ikusten denbora tarte txikixa pasatzen dabelako izango da. Bazekixuen hau tipuau mundu maillan diru gehixen dakanetari-ko bat dala? Ba halaxe da, ez dauka bizibide txarra: umoria lantzearren dirudun. Meritutik ezin ukatu behintzat. Guri umoriakin bizitzia tokatzen jaku eta horretarako dirurik bihar ez danez, ba listo.

Hurrengua ez da zaillaua izango, baiña boligrafua hartzeko lana berriz be zuena izango da. Idazteko prest zagozien danoi egindako galderia: zein edarto kantatzen daben hau?

Idatzi Goibekokalera, zuen kartak jasotzeko desiatzen gare eta.

Goibekokale aldizkaria
Salbador 2 Kultura Etxia
Elgeta (Gipuzkoa)
e-posta: goibeko@topagunea.com




**NI PUNTUA
NAIZ, BETI
AZKENA**


**NIKONA,
BETI
ESALDIK
MORTEN**


**NI
BETI
HARRI-
DURA
SORTZEN**


**NIK EZ DOT
ESANGO
NOR NAIZEN
ASMATU!!!
IZORRAI...**

Jgorren Komikia

Goibekokale 61.zk



<http://www.gipuzkoa.net/elgeta/>

Horixe da sartu behar den helbidea Elgetaren gaineko informazioa jasotzeko (<http://www.gipuzkoa.net/elgeta/>). Udaletxeak ahalegin berezia egin du internetean ere Elgetaren berri jaso ahal izateko. Elgetak bada, mundu zabalari lehio bat ireki dio eta nahi duenak egunaren 24 orduetan bere eskura du Elgetaren gaineko hainbat informazio. Orrialdeak kargatzen nahikotxo denbora behar bada ere, diseinu landua du Elgetako aurkezpen orriak, sinplea eta erakargarria. Begi bistan hainbat ikono eta Patxi Basauri alkatearen agurrean honokoa: *Alkatetza honetatik, orrialde honetan barrena nabigatu eta gure herriko errealitatean murgiltzeko gonbita luza-tzen dizuet, horrela Elgeta eta elgetarrak ezagutzeko beharra senti dezazuen.*

Horixe egin dugu bada eta erreportaia honetan bertan aurki daitekeen informazioa eta beste irakurri ahal izango duzu. Guk Aurki bilatzailea erabili dugu Elgeta terminoa sartu eta helbidea aurkitzeko. Gero, <http://www.gipuzkoa.net/elgeta/> aukeratu eta barrura. Oso interesgarria dirudi eta behin barruan sartutakoa elgetarrok ere ez dakizkigun zenbait datu

aurkituko ditugu. Guk, frantsesez nabigatzea aukeratu dugu, nahiz eta frantsesaz gain ingelesez, euskaraz eta espainolez

nabigatzea ere posible dirudien. Klik egin eta barrura!!!!!!!!!!!!

Herria non kokatua dagoen, historia pis-

Aurki bilatzailea erabili dugu Elgeta terminoa sartu eta helbidea aurkitzeko. Gero, <http://www.gipuzkoa.net/elgeta/> aukeratu eta barrura.

kat eta beste hainbat datu eskaintzen ditu frantseseko aukerak. Gero, ordea, ez da erreza frantsesez nabigatzen jarraitzea. Ezinezkoa da, esaterako txirindulari elkartearen berri frantsesez jakitea. Hau horrela, eta euskaraz ere badakigula aprobetxatuta euskaraz nabigatzea erabakitzen duenak informazio dexente jaso dezake. Horrelaxe hasten da testua: *Elgeta: Probintziaren*


mendebaldean eta izen bereko mendiaren hegoaldean dagoen udalerrri gipuzkoarra da.

Ikono erakargarriak

Ikono erakargarriak dau-de web orrialdean. Agian orrialdea guztiz ikusteko denbora asko galtzen da, hala ere, diseinua ona da. Pablo Urangaren gaineko informazioa jasotzeko ikonoa, "4 y medio" ikonoa, errotena, "21 Elgeta"... ikusi daitezke eta hauek klikatzean bakoitzari dagokion testua.

Informazio ugari

Goialdean ibiliz gero informazio ugari aurkitu daiteke, hala nola, kokapena, biztanleria, historia, datu ekonomikoak, garraioak, planoak, kale izendegia eta hainbat irudi ikusteko aukera. Informazioa barra-barra dago eta hori eskertzen den kontua da. Pena da txirrindularitzara zaletua den iparraldeko euskaldunak "ciclismo" zer den jakin beharra gustoko orriak zabaltzeko, izan ere, ikono hau ez baitago beste



hizkuntzetan. Txirrindulari elkartearen editoriala, palmaresa, hainbat erretratu, sailkapenak urteka... ikusi genitzake orri hauetan, Espainolez eta euskaraz bakarrik. Berdin gertatzen da Pablo Uranga zein den jakiteko edo

"4 y medio"-ren gaineko informazioa jasotzeko.

Kale izendegia eta garraioak

Kale izendegia jartzen duen lerrotxoak beste orrialde bat ikusteko au-

kera ematen du eta Elgetako mapa bat ageri da baserrien kokalekua eta izena ikusi daitezkeelarik. Baserriak banan-banan daude eta irudia handitzeko aukera badago, hala ere, kaleen izenik ez da inondik ageri imagina asko handitu arren.

Garraioei dagokionez ordutegi guztiak zehaztuta daude eta egoiki aurkeztuak taula bidez, Elgetako garraioen egoera denok dakigun modukoa izan arren. Ez da taula handirik behar izan ordutegi guztiak jartzeko.

Datu ekonomikoak

Askotan ez dugu jakiten herriak izan duen bilaka-

Informazioa barra-barra dago eta hori eskertzen den kontua da. Pena da txirrindularitzara zaletua den iparraldeko euskaldunak "ciclismo" zer den jakin beharra gustoko orriak zabaltzeko

Leku paregabea, eguneko menua
Tel: 943 76 82 83

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
Eguneko menua 800 pzta.
ELGETA - Karta.

giro atsegina lagunartean egoteko.
Tel: 768256

Jesús Mari Montiel
ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK
Artekale 3.
Mo: 656783299 Eibar Tel: 700719
**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**


era edo zein den diru-iturria, edo... Industriaren gainean hauxe irakurri dugu XEB-ean: *Industria, ostera, izugarri sendotu da. Ondorioz, asko dira hutsik geratu diren baserriak eta horietan nagusitzen den jarduera baso-ustiapena da. Esandakoaren adierazgarri 1996ko datuak ditugu: lana zuten herritarren % 4,24 bakarrik ari ziren lehen sektorean; industriaren eta zerbitzuen sektoreetan, berriz, % 48,54 eta % 42,71 hurrenez hurren, eta gainerako % 4,51 eraikuntzan.*

Langabeziak izan duen beherakada grafiko bidez edo enpresa guztien izenak, zertan diharduten, langile kopurua eta beste hainbat kontu jakin daitezke helbide honetan. Zorioneko datuak ikusi ahal izan ditugu langabeziari dagokionez: oso langabezi tasa baxua dago Elgetan. Bederatzi gizon eta hamaiika emakume bakarrik omen daude langabezian.

Gida komertziala

Gida komertziala kontsultatzeke aukera ere badago, bakarrik espainolez. Hala ere interesgarria dela iruditu eta barrura sartu gara. "Sociedades recreativas y culturales"-en bilaketa egin eta hiru aukera eman dizkigu testu honekin: *Guztira 3 denda aurkitu dira. Xehetasun gehiago ikusteko denda izena sakatu: Dendarren izena: GURE-BORDA, INTXORTA, MENDI-*

PC ordenagailu mota dutenek Elgetako Ereserkia ere entzun dezakete AUDIOA jartzen duen ikonoa klikatu ostean. Kargatzea asko kostatzen zaion arren ereserkia internetean bakarrik entzun daiteke gaur egun



MENDIA. Goibeko kultura elkarte ez dago gida komertzial honetan.

"Elgeta empresas"

Elgetako enpresen gainean ere informazioa badago. Ikono hori klikatzean, ordea, bakarra ageri zaigu, "productos", "situación" eta "teléfono" eta guzti ematen diguna. Badirudi enpresa gehiago ere gonbidatu gura direla web

orrian jartzera, hizkuntza bakarrean baino gehiagotan egongo al dute?

Irudiak

Web orrialdeetan barrena hainbat irudi ikus daitezke eta nahi izanez gero baita inprimatu ere, hala eta guztiz, leku berezia gordeta dago irudientzako. Denok dakigu zer den web orrialde bat irudiz jostea, hala ere, erretratuak txi-

kian aurkezten dira eta handitzeko posibilitatearekin. Aukera ona eta ez hain geldoa.

Audioa

Pentsatu daiteke Elgetako ereserkia entzuteko aukera egongo dela, hala ere, guk macintosh-a daukagu eta ezin bada. Mezu hau agertzen da euskaraz nabigatzen egon arren: *Para poder visualizar escuchar este*

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador. 26. Tel: 768190

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari denda

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxe: 768243

TAPEM, S.A.

Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK

himno deberá tener instalado en su PC RealPlayer.


Hainbat informazio gehiago

Planoak, agenda, Udalaren berri, biztanleriaren datuen barruan ebolizioa, haziera eta bestelako datuak ere jaso daitezke. Informazio pila bat dago eta horrek jazten du web-gune hau. Informazio hori sailkatuta ere badago eta berandu konturatu bagara ere "Web mapa" deri-tzonak bilaketa asko errazten du. Horrela konturatu gara udal antolakuntzaren berri jakin daitekeela edo dauden zerbitzuen berri. Lagun-tzak, tasak, udal batzarrak, hiri antolaketarako arauak, ekintzak, turismoa, kultura, aurrekontuak, planoen inprima-tzea eta beste

hamaika aukera ematen dituela.

Ikha (informazioa eta kudeaketa herri-tarren alde) da proiektu hau gauzatzen lagundu duen erakundea. Herritarrek elkarrenganagotzeko bidean aurrerapauso bat izateaz gainera,

Udal gestioa hobeto eramateko bidea eskaintzen omen du. Guk asko gustatu ez zaizkigun hainbat konturen artean informazioa batzeko ahalegin handiarekin aukitu gara. Ahalegin hau ordea gaizki ulertutako eleaniztasunean egina dago eta Web gune osoa euskara hutsean arakatzeko aukerarik ere ez dago, pena euskararen ezagutza hain altua duen herrirako. Iparraldekoak behintzat ez digute eskertuko.



Laguntzen berri, tasak, udal batzarrak, hiri antolaketarako arauak, ekintzak, turismoa, kultura, aurrekontuak, planoen inprimatzea eta beste hamaika kontu jakitzeko aukera zabalik dago eta munduko edozein lekutatik eskura daiteke informazioa urruti egonagatik.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

ELKORO TORLOJU LANTEGIA


DEKOLETAIA ETA FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua 2/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxa: 768203

IBAIBA- RRIAGA

GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA



Udaletxeak antolatutako kirol ekintzetan iazko jende kopuru berdintsua izango da

Urriaren 23an, Elgetako kirol instalakuntzen gaineko bilera irekia izango da

Udaletxeak urtero antolatu dituen kirol ekintzek iazko jende kopuru antzerakoa izango dute. Alde batetik eta Oskar Karraskal kirol teknikari berriaren eskutik mantenimenduko gimnasia dugu hirugarren adin eta gainerantzekoendako. Aerobic-eko bi talde ditugu, batzuk astelehen eta aztezenetan jarduten dute eta besteek martitzen eta eguenetan. Aurtengo berrikuntza yoga ikastaroa da (bi aldiz astean). Guztira zortzi pertsonen eman dute izena ikastaroa abiarazteko. Norbaitek ikastaro hauetako batean parte hartu nahi badu Udaletxean jaso dezake informazioa.

Bestalde, eta

OHO ko 1.go eta 2.mailako gazteentzat psikomotrizitate ikastaro bat egongo da eskola ordue-tatik kanpo. Gazte hauek oraindik txikiak dira eskola-kiroleko programan parte hartzeko eta horregatik udalak aukera hau eskaini nahi die.

Bilera gaueko 9etan

Elgetako kirol instalakuntzen oraina eta etorkizuna aztertzeko, bilera ireki bat antolatu da Udaletxetik urriaren 23rako (eguna). Bilera honetan herrian gaur egun ditugun kirol instalakuntzen balorazioa egin nahi da. Aldi berean, Elgetak datozen urteotan kirol instalazio berriak eraikituko (futbol



Saskiei tableroak aldatzeaz gain metalezko porteria berriak ipini dituzte.

zelai, igerileku,...) izan ditzazkeen aukerak aztertu nahi dira. Proiektu hauen bideragarritasuna aztertu nahi da, laguntzak eskuratu daitezkeen, informesak... Hau dela eta beharrezkoa izango da herritarren partehartzea. Bestal-

de, Udaletxeak kanpoko instalakuntzetan konponketak egin ditu: saskiak, porteriak eta lurzoru indarge-tzailea ezarri haurren kolpeak eta lokatza galerazteko.

Aurten ez dugu DV txapelketarik izango Elgetan

Xabier Uberak Martinez de Eulaterekin jokatu du DV txapelketa abenduaren 1ean Matienako frontoian. Iaz frontoira joan zen jende eskasia ikusita aurten ez dugu DV txapelketarik izango Elgetako

pilotalekuan. Bitartean Xabier Uberak Beginorekin jokatu du mundialean. Final laurdenetan sartuko dira jokatzera, urrezko domina lortzea izango dute helburu.

Klub arteko txapelketako partiduak ere aurrera doaz. Banakako txapelketan paper ona egin duten arren ezin esan berdina bikotekako txapelketan. Banaka sailkapenburu da Oskarbi. Binakako

txapelketan berriz, erdialdean kokatuta baina jeitsieratik salbu daude. Azken jardunaldian Uberal eta Arantzetak Añorgako taldearen aurka galdu zuten.



IRAMA
ELEKTRIZITATEA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
tel. mugikorra: 619692336
tel: 789057-768025



ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimensio batetara!

Tel: 768078

Eskola-kirolerako hiru talde osatzea lortu dute

Alebin mailako taldea osatzea ezinezkoa izan zaie

Benjamin mailan (9-10 urte) bi talde eta infantil mailan (12-13 urte) nesken talde bat osatzea lortu dute Eskola-kirola daramaten ardura-dunek. Aurten, haur faltagatik alebin mailako taldea osatu gabe geratu da. Iazko talde kopuru berdina da, iaz maila bakoitzeko talde bat zegoen bitartean, benjaminetan bi talde daude aurten. Benjamin mailan eskubaloia, saskibaloia eta futbolean



Benjaminen mutilen taldea Elgetako plazan eskubaloian jokatu ostean.

arituko dira. Azken talde honetan talde bat mutilena

da eta beste bat mixtoa (neskak eta mutilak bate-

ra). Mutilen taldeaz Iñaki Gorostiza arduratzen da eta mixtoaz Luis Zabaleta. Momentuz eskubaloiarekin dihardute eta mutilek bi partidak irabazi dituzte erraz. Talde mixtoak berriaz partida bat galdu du. Infantil mailako neskek, urte guztian futbol zazpian arituko dira. Momentuz, partida bat jokatu dute eta 2-0 eko emaitzaz irabazi zioten Oñatiko taldeari. Talde honetako ardura Emiliok darama.

Saskibaloia denboraldi berria hasi eta izen berria Saskibaloia taldearentzat

"Estampaciones Intxorta" izenpean jokatuko dute elgetarrek aurtengo Eibarko txapelketan. Iaz lortutako liga txapelketa irabazten saiatuko dira aurtengo urtean ere. Elgetarrak ditugu liga irabazteko faborito nagusiak. Jadanik bi partida jokatu eta biak irabazi dituzte. Momentuz garaitutako bi arerioak aurtengo txapelketan aurrean ibiliko diren taldeak izan dira. Lehendabiziko partida, ongi jokatuz irabazi zuten alde nabarmenaz. Bigarren aldiz, partida kaxkarragoa egin arren partidua aurrera ateratzea lortu zuten. Partida guztian zehar errenta eroso eraman arren, azkenean hiru puntuko aldeaz nagusitu ziren. Zortzi dira aurten Eibarko txapelketan parte hartuko duten taldeak (iaz baino bat gutxiago). Taldeari dagokionez, iazko jokalariek berdinez jardungo dira txapelketan.



Elgetako saskibaloia taldea lehendabiziko partida jokatu aurretik.



Jatorria, jator herria

Aurreko rebistan *euskaldun jatorraren bidea* aittatzen zan, eta hari punta horri helduta, askotan entzundako gauzen gaineko artikulua josten saiauko naiz.

Globalizazio eta abarreko sasoi honetan, orain dala urte gutxi idatzitako liburu batian irakurri neban euskaldunontzako esan leiken gauzarik onena *mutil* edo *neska jatorra* esatia ei dala. Madril aldiandean *oso listua* dala ei da esan leiken gauzarik onena, eta Kanariar aldiandean, berriz, *oso kariñosua* dala. Hori euskal kulturaren ezaugarrietako bat ei da, baiña, *jatorra izatia* edo *jator jokatzia* gero eta gutxiago estimatzen da Euskal Herrian.

Eta zer da jator izatia? Ba, herriko edo lu-

rraldeko ezaugarriak edukitzia. Eta zeintzuk dira ezaugarri horrek? Ba, auskalo. Liburugiliak beste guztia esaten dau, baiña, hori ez. Beno, esan esaten dau zeozer, baiña, periodistak gorde biharreko gizalegiarekin lotuta; azken batian, edozein egunkariko estilo liburutant leittu leikezenak.

Gogoratzen dot zelan egunkarixetan artikulua idazten daben gizon kultu, argi eta askotan jator eskolak ematen dabillan batek, bere artikuluetako baten jarririk. Itxura danez, Hondarribin pasatzen zittuan bakaziñuak, eta ez zeban entenditzen zelan jentia kejatzen zan berak goizeko zortziretan pasakailia egitten zebalako txistua jota. Bera hain jator egunero pasakailia jotzen eta jentia haserre oindioan.

Askotan entzuten da *euskaldun jatorra* eta

euskaldunon gaineko beste hainbat topiko be: euskaldunok nobliak, lagunak lagunak, langiliak, leialak... gazela. Horrelakuak askotan itxurarekin be lotzen dira. Zenbat bidar ez ote dogun entzun baten-baten itxuriagattik *euskalduna be ez dabela emoten* nahiz eta hori be-roi erdaraz esan eta *euskaldun pelaje bako* horrek euskaraz egiñ. Danok egitten doguz horrelakuak, eta nahiz eta gauzak aldatzen jua, oin-ddiokan be emoten dau herrixaren subkkontzientian dagoen zerbait dala.


Ez dakit, baiña, euskaldunok beste askoren modukuak izango gara, bai onerako bai txarreako: gauza onenak egitteko kapaz, eta baita gauza txarrenak egitteko be (galdetu bestela hortik zihar).

Lehen esandako moduan, horrelako gauzak leitzia eta entzutia ez

da arrarua, eta zeinek esaten dittuan ikusita, askotan indigena on eta tonto konplejua izaten dot. Indigenak horrela nahi izaten dittugu: *bai bwana* esan eta beti abegi onez hartuko gaituztenak, beraien etxietan, baita daken apurra kentzeko be. Baiña egun batian basta ya! (relobus) esan eta gizon zurixai aurre egitten badotze, salbajiak, hiltzailiak eta igual... terroristak be izango dira.

Dana dala, ez arduratu, laster berdinduko gara danok-eta. Madrillekuak ez dira oso listuak izango, ez kariñosuak Kanarietakuak, eta ezta jatorrak be euskaldunok, batzuk *oso guaiak* izango die, eta beste batzuk *super guaiak*.

Enrike Gorrotxategi



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009

SISTECO

erraminta makina

Juan Luis Berechinaga
Elgeta 20690 Pagatza Parke Ind. 2, B

**Hozkailuak eta
izozkailuak
aire giro-
tua.**

Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel: 768273



M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67



Erretratua: J. I. Erostarbe

Banakuan

Bogei urte izango dira honezkero, hau argazkixau atara zanetik. Jaixetako egitarau barruan sartu zeben dantza erakustaldixa. Lehenengo txangarengua, gero banako eta amaitzeko mutil batzuk neska moztu ziran sorgin dantzia egiteko. Jende mordua batu zan plazan, kontutan hartu bihar dogu, dantza egin zebenetatik batzuk ezkontuta eta seme alabekin zeuzazela ordurako.

Banakua dantza egiteko edade ezberdiñetako lagunak batu ziran. Argazkixak ez dabe erakusten zeñiek altxatzen zaban gorau hankia edo zeñiek egiten zaban hobeto bueltia. Badakigu dantzan ikasittakuak ez dirala ahazten eta demostraziñua egin biharko dozkue, oin hankia norarte altxatzen daben ikusteko. Herriko neska mutikuak be, ointxe hasi dira dantza ikastaruetan, ia lehenaukuek moduko intenziñua jartzen daben eta laster egitten dozkuen euskal dantza erakustaldixa.

Banakua dantza egin zaban zortzikua: **Jose Antonio Irazabal, Juan Luis Arantzeta, Felix Bolinaga, Juan Andres Aretxaga, Alberto Agirreazaldegui, Juan Mari Arantzeta, Migel Arantzeta eta Txomin Askasibar.**

*Zure erretratuen zain gare. Bialdu Goibekokalera eta bueltauko dotsuegu ahalik eta bizkorren.



Euskal Mendi federakundearen BATZARRA

Egitaraua

11:00etan Mendizale federakundearen batzarra

- Lehendakari berria aukeratzea
- Omenaldiak
- etab.

14:30etan Anaiarteko bazkaria

16:30etan erromeria XIBIDI taldearekin nahi duten guztientzako

- herritarrak gonbidatuta daude aretoa ikusi eta dantzan egitera
- Taberna ere zabalik egongo da goizeko 11:00etatik arratsaldeko 20:30etara



Eguna: azaroak 5
Ordua: goizeko 11:00etatik 20:30etara
Lekua: auditorium berrian

Auditoriumeko ateak herriari lehenengoz zabalduko zaizkio
Herritar guztiok gonbidatuta zaudete areto berria ikustera

Elgetako Udaletxea